



UDALERRIEN GARRANTZIA EUSKARAREN ERABILERAN (Azterketa baten ondorioak eta jarraibideak)

Xabier Mendiguren Bereziartu

Kontseilua

Helbide elektronikoa: kontseilua@kontseilua.org

Azken hilabeteotan puri-purian egon da ele biko irakastereduen gaineko eztabaida: lau aditu-taldek: juridikoak, soziolinguistikoak, psikolinguistikoak eta operatiboak txostenak atondu dituzte, ondoren estatuko eta nazioarteko beste aditu talde batek bere iritziak eman dituzte azterturiko gaien inguruan eta azkenik Tontxu Campos, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak bere proposamena egin du orain arteko irakastereduek gainditzeko markoaz eta abian jarri da Lege Biltzarrean etorkizunearan gure irakaskuntza-sistema hizkuntzei dagokienez gidatuko duen prozesua. Esan beharrik ez dago aditu guztiek agerian jarri dutela honelako prozesuak duen konplexutasuna eta bertan eragina duten faktoreen askotarikotasuna, eta ondorioz, ez dagoela formula simple eta errazik gure helburu lortzeko, hots, 16 urteko gazte euskaldun eleaniztunak sortzeko.

Hala ere, puntu batean ia denak bat etorri dira: euskal hezkuntza-sistema gaur ematen dituenak baino emaitza hobek emateko gai da horretarako beharrezko baliabide guztiak erabiliz gero, baina guztiarekin ere mugatua da eta ezin lekiok euskaraz bere aldetik eman behar diotnik. Beraz, ondorioa aski garbia da: **eskolak ematen diona mugatua, murriztua edo aberastua eta areagotua gertatuko da eskola-orduez kanpo haurrak bere ingurunean aurkituko duen hizkuntza-giroarekin.**

Ingurune eta giro hori, neurri handi batean, udalerriaren mugen barruan egosten da, nahiz eta komunikabide orokorrenak esparru hori gainditzen duen, eta hortik udalerrian euskararen aldeko hizkuntza-politika egoki bat izateak duen garrantzia eskolak bere aldetik egiten duen ahalegin eskergaren osagarri gisa.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak 1998an sortu zenetik oso kontuan izan du hezkuntza eremuaz kanpoko jarduerak euskaraz garatzearen garrantzia euskararen normalizaziorako eta Bai Euskarari Plan Estrategikoan hasiera batean, eta Bai Euskararen Ziurtagiriaren bitartez eragin nahi izan du Euskal Herri osoan gizarte-giro gero eta eskaldunago hori, Hizkuntza Eskubideen Behatokia sortuz hizkuntza-eskubideen aldeko kontzientzia areagotuz erraztu eta sendotu duelarik.

Horregatik, ildo horretatik aurrera eginez, ezinbesteko ikusi du udalerrietako hizkuntza-politikan eragitea, horretarako 66 udalerritako udalpolitikaren neurketa eginez. Bide batez, esan behar da 2 milioi biztanlerengan eragina duen politika dela neurketa egiteko hautatu diren udalerri horienak.

2007ko urtarrilaren 18an, Donostiako Aquariumean egindako aurkezpenean aditzera eman zenez 150 adituren laguntza izan du Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak neurketa burutzeko eta ondorio nagusia izan da udalerrien hizkuntza-politika funtsezkoa dela euskararen normalizazioan aurrera egiteko, herri bakoitzean euskara erabiltzeko aukerak emateko eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Hizkuntza-politika hiru elementuk osatzen dute: corpus juridikoak, hots, euskararen aldeko arau-bildumak, baliabideek (giza baliabideek, ekonomikoek eta administratiboek) eta euskararen egoerak edo ezagutza-tasak.

UDAL NEURKETAREN RANKINA

Udalen ordenantzak aztertu ondoren, emaitzak puntuazio baten bidez islatu ditu Kontseiluak. 0tik 10 arteko notak jarri dira erantzunen azterketa egin ondoren, 0 puntu izateak hizkuntza-politikak euskarari inolako tarterik ez diola eskaintzen adierazi nahi du eta 10 puntuak euskara hutsezko funtzionamendua. Zazpi puntu eskuratzeak definitzen du euskara lehenesteko eta sustatzeko udalak egiten duen ahalegina neurketa honen arabera.

Hauek dira lortutako puntuazioak:

Kontseiluak burutu duen azterketa honen ondorioak argi eta garbiak dira: neurri betearazleak ez badira ageri, enpresen eta zerbitzuen gaineko neurri-eskariak oso ahulak badira, langile kontratatu berriak elebidunak izateko erabakia azken aurrekoa bada (16 udalek bakarrik dute udal-langile guztiak barne dituen plangintza abian), udalen erdiak bakarrik baldin badu euskararen udal-ordenantza eta heren batek plan orokorrik ez badu, eta udal askoren joera azpi-kontratazioak egitea bada, ezinbestekoa da hizkuntza-politika berri bat egitea udalerrian euskararen erabilera bultzatu eta euskaraz hitz egiteko aukerak emateko.

HERRIA	PUNTUAK	ESTATUS JURIDIKOA	EZAGUTZA (ia euskaldunak gehituta)	EREMU ADMINISTRA-TIBOA	HERRIALDEA
AZPEITIA	6,82	OFIZIALA	94,8	EAE	GIPUZKOA
LEKEITIO	6,58	OFIZIALA	96,1	EAE	BIZKAIA
OÑATI	6,54	OFIZIALA	90,1	EAE	GIPUZKOA
TOLOSA	6,48	OFIZIALA	85,2	EAE	GIPUZKOA
BERGARA	6,35	OFIZIALA	84,4	EAE	GIPUZKOA
BERMEO	6,31	OFIZIALA	90,6	EAE	BIZKAIA
ORIO	6,25	OFIZIALA	92,4	EAE	GIPUZKOA
GERNIKA	6,12	OFIZIALA	86,6	EAE	BIZKAIA
ONDARROA	6,03	OFIZIALA	98	EAE	BIZKAIA
ELGOIBAR	5,85	OFIZIALA	73,8	EAE	GIPUZKOA
SORALUZE	5,75	OFIZIALA	76,7	EAE	GIPUZKOA
BEASAIN	5,64	OFIZIALA	77	EAE	GIPUZKOA
ZARAUTZ	5,46	OFIZIALA	86,4	EAE	GIPUZKOA
HONDARRIBIA	5,39	OFIZIALA	79	EAE	GIPUZKOA
AZKOITIA	5,2	OFIZIALA	90,7	EAE	GIPUZKOA
MUNGIA	5,1	OFIZIALA	71,3	EAE	GIPUZKOA
EIBAR	4,98	OFIZIALA	71,3	EAE	GIPUZKOA
ARRASATE	4,95	OFIZIALA	73,6	EAE	GIPUZKOA
ORDIZIA	4,88	OFIZIALA	78,6	EAE	GIPUZKOA
HERNANI	4,78	OFIZIALA	74	EAE	GIPUZKOA
IRUN	4,76	OFIZIALA	50,7	EAE	GIPUZKOA
GALDAKAO	4,64	OFIZIALA	60	EAE	BIZKAIA
LESAKA	4,6	OFIZIALA	93,3	NFK	NAFARROA GARAIA
ALTSASU	4,59	OFIZIALA	44,3	NFK	NAFARROA GARAIA
ZUMARRAGA	4,58	OFIZIALA	61,3	EAE	GIPUZKOA
DONOSTIA	4,22	OFIZIALA	63	EAE	GIPUZKOA
PASAIA	4,07	OFIZIALA	56,9	EAE	GIPUZKOA
LASARTE-ORIA	4,02	OFIZIALA	62	EAE	GIPUZKOA
AMURRIO	4,01	OFIZIALA	46,1	EAE	ARABA
ERANDIO	3,92	OFIZIALA	46,1	EAE	BIZKAIA
DURANGO	3,88	OFIZIALA	72,1	EAE	BIZKAIA
AGURAIN	3,71	OFIZIALA	46,5	EAE	ARABA
BAZTAN	3,62	OFIZIALA	91,4	NFK	NAFARROA GARAIA
BASAURI	3,57	OFIZIALA	43,7	EAE	BIZKAIA
GASTEIZ	3,55	OFIZIALA	40,9	EAE	ARABA
BARAÑAIN	3,24	OFIZIALA	20,3	NFK	NAFARROA GARAIA
ARRIGORRIAGA	3,23	OFIZIALA	41	EAE	BIZKAIA
ERMUA	3,19	OFIZIALA	49,1	EAE	BIZKAIA
ERRETERIA	3,11	OFIZIALA	53,2	EAE	GIPUZKOA
ZALLA	3,03	OFIZIALA	34,4	EAE	BIZKAIA
SESTAO	3,01	OFIZIALA	39,2	EAE	BIZKAIA
ZORNOTZA	2,72	OFIZIALA	74,7	EAE	BIZKAIA
ATARRABIA	2,69	MISTOA	27,4	NFK	NAFARROA GARAIA
BILBO	2,61	OFIZIALA	42,1	EAE	BIZKAIA
BURLATA	2,59	MISTOA	23,5	NFK	NAFARROA GARAIA
BERRIOZAR	2,44	MISTOA	19,4	NFK	NAFARROA GARAIA
LAUDIO	2,26	OFIZIALA	49,1	EAE	ARABA
TRAPAGARAN	1,9	OFIZIALA	39,5	EAE	BIZKAIA
IRUÑEA	1,75	MISTOA	19,3	NFK	NAFARROA GARAIA
ZIZUR NAGUSIA	1,71	MISTOA	25,4	NFK	NAFARROA GARAIA
PORTUGALETE	1,57	OFIZIALA	38,6	EAE	BIZKAIA
AGOITZ	1,54	MISTOA	28,6	NFK	NAFARROA GARAIA
TAFALLA	1,31	EZ OFIZIALA	16,5	NFK	NAFARROA GARAIA
SANTURTZI	1,31	OFIZIALA	37,4	EAE	BIZKAIA
BARAKALDO	1,13	OFIZIALA	34,4	EAE	BIZKAIA
LIZARRA	0,98	MISTOA	21,3	NFK	NAFARROA GARAIA

GARES	0,87	MISTOA	16,7	NFK	NAFARROA GARAIA
OION	0,85	OFIZIALA	27,7	EAE	ARABA NAFARROA GARAIA
ZANGOZA	0,58	EZ OFIZIALA	8,99	NFK	LAPURDI
BIARRITZ	0,56	EZ OFIZIALA	% 0-% 20	PAD	ZUBEROA
ATARRATZE	0,4	EZ OFIZIALA	% 0-% 20	PAD	LAPURDI
DONIBANE	0,23	EZ OFIZIALA	% 0-% 20	PAD	LAPURDI
ANGELU	0,22	EZ OFIZIALA	% 0-% 20	PAD	LAPURDI
AZPARNE	0,21	EZ OFIZIALA	% 0-% 20	PAD	LAPURDI
BAIONA	0,002	EZ OFIZIALA	% 0-% 20	PAD	LAPURDI NAFARROA GARAIA
TUTERA	0	EZ OFIZIALA	3,5	NFK	

ONDORIOAK

Honako puntuotan laburbil daitezke neurketaren ondorio nagusiak:

- 7koa da euskara lehenesten duen hizkuntza-politika egokia definitzen duen puntuazioa, eta gehien hurbiltzen diren 4 udalak, Azpeitia, Lekeitio, Oñati eta Tolosa dira.
- Kasu askotan, hartutako erabakiaren segimendurik ez da egiten eta arauak ez du balio izan egoera aldatzeko.
- Udalek lortzen duten puntuazioa harreman estuan dago ezagutzatasarekin.
- Bereziki deigarria da euskara ofiziala den lurraldean kokatutako udalerriak, euskara ofiziala ez dutenetatik gertu, zerrendaren ia azken postuetan ikustea.
- Iparraldeko eta Nafarroaren hegoaldeko herrientzat dira azkeneko postuak. Ofizialtasun faltak definitzen du estatua ea askotan ezagutza altua bada ere, euskararen aldeko hizkuntza-politikarik ez dago.
- Zerrendaren lehen herenean handia da oso Gipuzkoako herrien presentzia.
- Hiriburuei dagokienez, honakoa da rankina:
 1. Donostia
 2. Gasteiz
 3. Bilbo
 4. Iruñea
 5. Baiona
- Kontuan hartzen badugu herrialdeko biztanle guztientzat erreferente direla oso maila eskasa eskaintzen dute. Bereziki aipagarria da Bilboko kasua euskara ofiziala den lurraldean kokatuta egonik, lortutako puntuazioa oso txikia baita(2,617).
- Ibarrezkerreko udalerrri handien puntuazioa oso eskasa da eta rankinaren bukaeran ageri dira. Rankinaren bukaeran agertzen dira euskara ofiziala ez den lurraldean kokatutako batzuen azpitik, eta populazio handia dutela kontuan hartzen bada, ondorioztatu behar da jende askorengan duela eragina hizkuntza-politika desegoki horrek.

- Aztertutako udalen erdiak bakarrik du udal ordenantza. Ondorioz, borondatean oinarritutako eta babes juridikorik gabeko hizkuntza politika aplikatzen da aztertutako udalen erdien kasuan.
- Udalerrien herenak bakarrik ziurtatzen du euskararen erabilera osoko bilkuretako materialean.
- Dirulaguntzen banaketan hartzaileei ez zaie hizkuntza-eskakizunik ezartzen kasuen % 60an.
- Aztertutakoen artean soilik 14 udalek dute langile elebidunak kontratatzeke erabakia hartua. Kasu gehienetan langile elebakarrak kontratatzen segitzen dute.

ERABILERA BULTZATU ETA AUKERAK EMAN

Kontseiluak burutu duen azterketa honen ondorioak argi eta garbiak dira: neurri betearazleak ez badira ageri, enpresen eta zerbitzuen gaineko neurri-eskariak oso ahulak badira, langile kontratatu berriak elebidunak izateko erabakia azken aurrekoa bada (16 udalek bakarrik dute udal langile guztiak barne dituen plangintza abian), udalen erdiak bakarrik baldin badu euskararen udal-ordenantza eta heren batek plan orokorrik ez badu, eta udal askoren joera azpi-kontratazioak egitea bada, ezinbestekoa da hizkuntza-politika berri bat egitea udalerrian euskararen erabilera bultzatu eta euskaraz hitz egiteko aukerak emateko.

Hori egin ezean ezinezkoa gertatuko da Hezkuntza Sailari haur eta gazteak euskalduntzen eskatzen zaion ahalegin eskerga arrakastaz bururatzeara eta adin horretatik aurrera, unibertsitatean eta lan-munduan beharrezkoa den giroa aurkitzea belaunaldi berriek.

Kontseiluak diagnosis eta hutsuneen detekzioa egiteaz gainera, gabeki bideratzeko tresna egokia izan daitekeen *Euskararen Ordenantza Eredugarriak* argitaratu eman ditu Akordio Soziopolitikoaren baitan bildutako alderdi eta sindikatuen hausnarketa eta lanaren emaitza gisa.

2007ko otsailean argitaratu ziren Euskararen Ordenantza Eredugarriek udalerriek hartu beharreko erantzukizuna betetzeko oinarriak ezartzen ditu, euskararen erabileraren normalizazioari buruzko udal-ekintza arautzeko, hala administrazioaren barne-erabilerari eta herritarrekiko harremani dagokienez, nola udalerraren gizarte-bizitzan.

Euskararen Ordenantza Eredugarri hauek hiru atal dituzte, Lehengoan hizkuntzaren ofizialtasuna, aplikazio-esparrua, euskararen lehentasunezko tratamendua beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak aipatzen dira.

Bigarrenean, Udalarekiko harremanak euskara hutsean ziurtatzea, laneko hizkuntza, enplegatuek euskalduntzea, harreman elebidunak ziurtatzea, lanpostuak betetzeko prozedurak, agiriak inskribatzea, agiri ofizialak, euskarazko agiriaren balio ofiziala euskararen lehentasuna, aktak, euskara lan-hizkuntza, bilkuretako deialdiak, inprimakiak eta zigi-

luak, euskara bakarrik erabiliko den kasuak, Udal Egoitzetako errotulazioa eta beste erakundeekiko harremanak lantzen ditu.

Hirugarren kapituluan, herritarren ezagupena eta erabileraren sustapena, toponimia, trafikoseinaleak, piktogramak, garraio publikoa, dirulaguntzak, udal-instalazioen eta materialen erabilera, kioskoak, barrakak, publizitate-zerga, irakaskuntza ez-unibertsitarioa, udal-hautzaindegiak, helduen euskalduntze alfabetatzea, gizarte-bizitzaren euskalduntzea, udal-euskara zerbitzua eta kexak bideratzea lantzen ditu.

Amaierako Xedapen Gehigarrietan Jarraipenerako Batzorde Berezia eta haren betebeharrak, emaitzen neurketa eta udal-proiektuak aztertzen dira.

Pentsa daitekeenez, ordenantza eredugarri hauek kontuan izatea ezinbestekoa izango da udalerrri guztietan hutsune nabariak daudelako eta zenbaitetan euskararen aldeko politika dei litekeenik abiarazi ere egin ez delako oraindik. Beraz, alderdi politikoek badute ordenantza horietan udalerriko hizkuntza-politikari ekarpenak egiteko aukera bikaina, eta horrela euskararen normalizazioari bultzada on bat emateko abagunea.

Halaber, Kontseiluak hauteskondeetan esku hartu duten alderdi guztiei gutunak igorri dizkie gizarteari euskararen sailean zer eskaintzen dioten jakiteko, alderaketa konparatibo bat egin eta hautesleei irizpideak lantzen laguntzeko. Izan ere, sinetsirik dago udal hauteskondeetan euskarari zentralitatea ematea beharrezkoa dela udalerrietan agertu den panorama errotik aldatu eta hobetu nahi bada. Hiritarrarentzat bere eguneroko bizitzaren parterik handiena udalerrian garatzen da eta hor zer aukera aurkitzen duen erabakigarria gertatzen zaio bere eguneroko jardunean euskaldun-izatea erosotasunez garatzeko edo oztopo-lasterketa batean ibiltzeko nahiaren eta ezinaren artean. Hortik datorkio udalerriko hizkuntza-politikari bere garrantzia, izan ere goragoko mailakoak duen garrantzia batere gutxietsi gabe, biztanleriaren ehuneko handi batentzat udal-esparruan garatzen da eguneroko bizitzaren parterik handiena.■